



**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Igandea  
2010-09-19**

VIII. URTEA 278. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)



J. GOROSTARZU

**ITSASO URKIZU ETA NAGORE AROZENA** PALISTAK

«Inork ez du ezagutzen gure modalitatea; orain hasi da pixka bat mugitzen»

**KIROLA** Munduko Euskal Pilota Txapelketan gomazko paletan ariko dira; aurten «nahiko gaizki» ibili badira ere, buelta ematea espero dute 7

**Mikel Ayestarani** ongi etorria egin diote herritarrek

**VILLABONA** Dultzaineroak, dantzariak, bertsolariak eta herriko beste euskal presoen senideak izan ziren Berdura plazan 5



100 bat pintxo banatu zituzten Trianguloan. I. GARCIA

## Elikagaiak goizean goiz azokan erosi eta zuzenean herritarren ahora

**TOLOSA** 19-90 tabernako sukaldarien txanda izan da Azokak + KM 0 egitasmoan 4

## Gaur bukatuko dira Kalebehera auzoko jaiak

**ALEGIA** Dantzarien eta txakolin zein sardina dastatzearen ondotik herri bazkaria egingo dute 6

ZARAUZ

### SURFGARAGE

(Marina-Txiki taberna azpian)

Taulak, neoprenoak eta abar gordetzeko lekua urtean zehar

DUTXAK-TAKILAK-KABINAK

**EURO 1 EGUNEKO...**

info: surfgarag@gmail.com

tel.: 600 880 238

**TARTALO DENDA IREKITA**  
**Eskaintzak!!**

**Iraila / urria 2010**  
Osteguna ostirala larunbata

16	17	18
23	24	25
30	1	2
7	8	9

**TARTAL**

Plaza zaharra, 10. Tolosa

» **Uzturretik****Koldobika Jauregi**

**U**dazkeneko hosto hegalariek badirudi gonbidatzen gaituztela bidaiatzera edo hobeto esanda metamorfosezera, hosto berdetik lur kolorera, adarraren gelditasunetik hegan egitera eta goitik behera...

Aldaketak edo hobeto esanda metamorfosia da dena aldatzen duena eta testuinguru berri bat

sortzen duena. 'Euskal Herria' zen, hogeita batgarren mendeko garai haietan, euskara bizirik zegoen eta mendiak adibidez ezin zuen beste izena izan, mendiarena baizik. Gero, mendi izena beste zenbait hizkuntzetan azaldu zenean bazirudien betiko paisaia hura al dakorra bueltatu zela, 'montes' horrek aldatu zuela, metamorfosiatu.

Beste batzuetan ere, lurra 'tierra' izan da eta hau ere eta segun non eta noiz forma aldatzen joan da. Gure lurra, ez dakit oso ondo nolakoa izan zitekeen, baina bai nire osaba batzuk mutil kozkor ga-

raian lurraren bukaera ikustera abiatu zirela Larraul herritik irten da. Noski, laster aspertu ziren.

Edmund Halleyk, kometaren traiekтория markatu zuen gizonak, pentsatzen zuen alderantziz, lurra, lurbola huts bat zela barrendik edota Cristobal Colonek zioen udare itxura zuela munduko boklak, beste batzuek zelai eta borobila, zelai eta laukia...

Hogeita batgarren mendean lurra borobila zen... beno, utzi dezagun horrela, martzianoak oraindik berdeak ziren, gerrak pizten ziren arrisku zalantzari aurre egiteko eta euskaldunak ere globa-

lizatuak behar genuen izan, beharrezko ebanjelizazio baten ondorioz, metamorfosia.

Bakoitzak bere susmoak beste- en aurrean egiaztatzen saiatzen zen eta denboraren poderioz, xomorrotzen.

Chuang Tse jakintsu txinatar batek ere amestu zuen tximeleta bat zela, esnatu zenean duda sortu zitzaion orduan ere ez ote zen beste amets bat, tximeleta izanik gizona zela amesten zuena eta... hots, errealitatearen zalantza eta xomorrotze hori, metamorfosia.

Nor? Kafka... Beste baterako utziko dugu.

Ni bizi naizen uharte huts hone- tan ezin dut imajinatu ez besterik, desagertze garai haiek, zeren hori da metamorfosian gertatzen dena, bai zer bait berria sortzen da eta pa- tatin patatan. Aspaldi urrutuzten hasi nintzen nire uharte txiki ho- netan eta akaso garai bateko kon- tuak kresalduak bezala dakusaz- kit. Hogeita batgarren mende har- tan zenbait lur eremu naturalak hasi ziren babesten, beste gutzia metamorfosirako libre zegoen eta hara hemen, nik ere, neure burua eremu naturala bezala erabaki nuela babestea.

Gaur egun xomorro bat besterik ez naiz, elitroak noiz jaioko zaizki- dan zain uharte honetatik ere alde- giteko, baina hori bai bihotza beti- rako geratu zitzaidan Herrian.

L **Lehen eta orain****XII. Garagardo Azoka abian**

**TOLOSA** • Hamabigarren urtez egingo dute aurtengoan Garagardo Azoka Tolosan. Kirol taldeek antolatzen dute, Udalaren laguntzarekin, urtero bezala, eta beti bezala jendez lepo egon da asteburu osoan zehar. Lehen irudia VI. edizioa da, 2004an izan zena, hain zuzen. Orduan ere giro pa- regabea izan zen azokan. A. BELAUNZARAN-R. CALVO

U **Urteurrena**

Bigarren urteurrena

**JUAN MARI GARMENDIA ARTEAGA**

2008ko irailaren 18an hil zen, 60 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-

Hasiera hartan izan genuen bihotzean hainbat dolore ahaztezinak bihurtu dira jakinduri ta balore.

Zure ondoan biziitzeak suerte eta ohore izango zara gure bizitzan buka ezinezko motore.



Haren arimaren alde otoiutz bat eskaltzen dizuegu eta arren etor- zaitzela GAUR, IGANDEA, eguerdiko HAMABI ETA ERDIETAN Ba- liarraingo ANDRE MARI JASOKUNDEAREN parroki elizian egingo den bigarren urtebetetzeko mezara. Aldez aurretik mila esker.

**BALIARRAINEN,**  
2010eko irailaren  
19a

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN** agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko HITZA.info / Tel.: 943-65 56 95



**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK

**SPUTNIK DORREEN ONDOAN**  
ZURE BETIKO EHORZTETXEA

www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40

ZERBITZU IRAUNKORRA  
902 402 900

## G Gutunak

### Herri maputxea

Uztailaren 12tik ezer ahorratu gabe daude 34 preso politiko maputxe Txileko kartzeletan. Esperantza eta duintasuna baino ez zaie gertzen egunaren eta gauaren gogortasunari aurre egiteko. Igerian ari dira, baina itsaso oso baten aurka, izan ere, estatu «demokratiko» ba-

nak... Presondegiko araudiaren arabera, gose greban aritzea jarra- re desegokia da, beraz zigortzeko beste modu bat eskaini die legeak. Angol, Temuko eta Valdiviako espetxeratu bitartekari-bozera- maileak ere atxilotu egin dituzte, kartzelak orain arte izan dena izan- ten jarraitu dezan: isolamendua. Irailaren 11ko gertakizunen harira heldu ziren azken atxiloteta

elkartasun internazionalista eskai- ni dieten lagunak eta Askapenatik ere, gure besakadarik beroena es- kaini nahi dizuegu lurraren jende- ari, hemen ere, errepresio olatuek geratzeko asmorik ez duten hon- tan:

Gernika U-16, herriok indepen- dentzia!  
Marichi weu! Marichi weu!  
**Tolosaldeko Askapena.** Tolosa.



ten preso politikoak ez dira berri. Bestelakoa litzateke oihartzuna nazioarteak erregimentat zituen lurraldetan ariko balira protestan, zaharrak berri hementen ere.

Piñeraren gobernu berriz, arazoari irtenbide bat eman ordez, presoak nola jatera behartu pen- tsatzan ari da eta tartean, aurreko agintaria zena, Michele Bachelet, nazio batuen emakume agentzian kokatu dute, itzalean geratu dira bere agintaldian eraildako mapu- txeak, nahiz lege antiterroristape- an ezarritako zigorrak, egungo arrazoari nagusiak bestalde, grebari ekiteko.

IXilpeko borroka hau gutxi ba- litz, Angoleko presoek esaterako, noiznahi jendarmeriaren bisitak jasan behar izaten dituzte: egun osoko argizatzaiek, kolpeak, irai-

hauek, urtero gertatzen dira isti- luak Allenderen aurkako estatu golpearen urteurrenean, baina aurtengo protestak lurraren jen- dearen aldeko mezua bilakatu dira, bozerramaileak isilarazi dituzten arren.

Asteotan, ospakizunetan ari dira Txileko agintariak, 200 urte igaro omen dira estatua sortu eta askatasuna lortu zutenetik. Trans- nazionalak gutxienez izango dute zere ospatua: orain arte behintzat maputxei lurrak ostu eta bi men- de aberastasun pilatzeko adina as- katasun eman diete eta.

Bitartean maputxeak itsaso ba- ten aurka igerian eta geratzeko as- morik gabe gainera, gose grebala- rriek batz best 18 kilotik gora gal- du badituzte ere. Baina herri on mundu honetan ehunka izan dira

### Hego Euskal Herriko langile klasea eta irailaren 29ko greba orokorra

Lan erreformak suposatzen zuten erasoaren aurrean, Euskal Herri- ko gehiengo sindikalak 2009ko maiatzaren 21ean hasitako bidea jarraitu zuen, iragan den ekainaren 29an greba orokor bat deituz. Gre- ba hauen aurka burgesiak deskali- fikaziozko eta kalumniazko kan- paina politiko anker bat jaurti zuen. Horregatik zen hain garran- tzitsua UGT eta CCOOko zuzen- daritzek bi deialdi hauek babeste- a. Baina akats larri bat egin zuten, ze- ren CCOO bakarrik babestu zuen ekainaren 29koa eta EAEn bak- arrik egin zuten. Honen ondoren, CCOO eta UGTko zuzendaritzek irailaren 29rako planteatu zuten greba orokorra, egoerak presiona- tuta eta negoziazio mahaiek eraso- rik geratzen ez zutenaren nabar- mentasunaren aurrean. Uste dugu, Estatu espainiar osoko langi- le klasea 24 orduko greba orokor batera deituta dagoenean, mahai gainean jarri behar dela zer irabaz- ten dugun eta zer galtzen dugun Hego Euskal Herriko langileok greba orokor honetan parte hartu- ta.

Burgesia, edozein desberdinta-

sun nazionalen ginetik, modu ba- teratuan jarduten ari da langile kla- searen aurka. Euskal burgesiak ez du dudarik izan gobernu espainia- rrekin eta burgesia espainiarrare- kin aliatzeko herztura plan guz- tiak eta lan erreforma babesteko. Burgesia langile mugimenduaren aurkako bere ekintzan elkartuta mantentzen bada, langileok ere gure indarrak bateratzea behar dugu. Ekintza sindikalaren batasuna beharrezkoa da; langileen zati- ketatik etekina ateratzen duten ba- karrak bankariak eta enpresariak dira, bai euskal herritarrek eta bai espainiarrek.

Egia da CCOO eta UGTko agin- tariak ardura handia dutela gerta- tzen ari den guztian. Eta egia da ere greba orokor bat askoz lehenago konbokatuz behar zutela. Baina orain aukera bat azaltzen da Hego Euskal Herriko langile klaseak kol- pe bat emateko aldi berean, modu bateratuan, Estatu espainiarreko langileekin, gure etsaiei. UGT eta CCOOko zuzendaritzek segidim- oia egitea esan nahiko zuteen? Ezet uste dugu. Borroka batera- tuak ez du esan nahi sindikatu ba- tek, kasu honetan ELA eta LABek, bere errendikazioak alde batera utzi edo gainontzeko sindikatuak kritikatzeari utzi behar dionik; guz- tiz aurkakoa, hori posible da eta ba- harrezkoa gainera. Burgesia espai- niarraren eta euskal herritarren eraso bateratuen aurrean, beha- rrezkoa da langile mugimendua el- kartuko duen politika defentsiboa bat. Taktika honek, errendikazio zehatzen defentsan hitzartutako ekintzen bidez etsai komunak bo- rroratzeko balio du, sindikatu ba- koitzak independentzia osoa man- tenduz.

ELA eta LABek ez zuketean ezer galduko irailaren 29ko greba oro- korra antolatuz eta konbokatuz, guztiz aurkakoa, autoritate gehia- gu irabaziko zuketean, baita CCOO eta UGTko oinarrian ere. CCOO eta UGTko zuzendaritzek modu desegokian jardun izatea, ekintza batasunari uko eginez, beren ara- zoa da, eta gainera, jokabide horrek faktura garrantzitsu bat pasa die. Baina Euskal Herriko langile kla- sea modu gogorrean kolpatuko du- ren plan batzuk garaitzeko modu bateratuan borroratzeko aukera bat dagoenean, ELA eta LABeko

zuzendaritzek aukera hau bi es- kuekin hartu beharko lukete. Modu honetan UGT eta CCOOko agintarien inkoherezkiak garbita- sun gehiagorekin agerraraziko li- rateke.

Irailaren 29ko greba orokorra babesteak Euskal Herriaren esku- bide demokratikoen aldeko borro- ka alde batetara uztea edo ahultzea esan nahiko zuteen? Guztiz aurka- koa uste dugu. ELA eta LABeko zu- zendaritzek greba hau babesteak eragin handia izango zuteen langi- le klase espainiarrean, aukera ona izango zen langile klasearen bata- suna defendatzeko, langile inter- nazionalismoa defendatzeko eta Estatu espainiarreko langile mugimenduari harremanak estu- tzeko. Eta guzti honek langile espainiarrei Euskal Herriaren au- todeterminazio eskubidea defen- datzearen beharra azaltzeko balio- ko luke. Estatu gainontzeko lan- gile klasea zuzendutako politika eta propaganda honen bidez, atek irekiko lirateke bere eskubideak lortzeko Euskal Herriak behar duen babesa irabazteko. Erabat ba- teragarria da, eta gainera ezinbes- tekoa, Estatu espainiarreko eta frantziarreko langileekin borroka bateratua eta aldi berean autode- terminazio eskubidea defenda- tzea, LABek modu egokian estatu frantziarreko greba orokorrak ba- bestu ditueanean frogatu den beza- la.

2009ko maiatzaren 21eko, eta 2010eko ekainaren 29ko eta iraila- ren 29ko grebak ezin daitezke har- tu ezeren bukaera bezala, mobili- zazio zabalagoen prozesu baten zati bezala baizik, jarraitu eta langi- le klasearen kontzientzia maila al- txa behar duena, oinarritzko alda- rrikapenak kapitalismoaren aur- kako borrokarekin lotuz. Langile klase europar osoa erasotua izaten ari da eta honek borroka egiteko borondate handia azaldu du. Esta- tu europar ezberdinetako irailaren 29ko greba orokor eta partzialen ondoren, beharrezkoa da sindikatu europarrek hurrengo bezala Euro- pa osoko 24 orduko greba orokor bateratua planteatzeko. Kapitalis- moaren krisia ezin da konpondu erregulazioekin, erreformekin edo aurpegi gizatiarreko ezinezko ka- pitalismo batekin. Beharrezkoa da sistema ustel hau borroratzea so- zialismoaren alde borroratuz, ekointzko indarren jabeago pribatuekin bukatuz eta ekonomiaren funtsezko palankak langileen kontrol demokratikopean jarriz.

**Ibon Artola, Euskal Herria Sozialista aldizkariko kidea.**  
Tolosa.

## Iragarki laburrak

### LANA

■ **Haurrak zaintzeko.** Neska bat, ikasturtean zehar haurrak zaintze- ko eskaintzen da. Esperientziadu- na da. Interesatuta egonez gero, deitu 685 70 6103 telefono zenbakira.

### SALGAI

■ **Autoa.** Volkswagen Tovareg V6. Hiru urte bakarrik ditu. 100.000 kilometro ditu eta oso egoera one- an aurkitzen da. Interesatuek 629 40 32 20 telefono zenbakira deitu beharko dute.

■ **Etxebizitza.** Betelun pisua sal- tzen da. Berria da: hiru logela, su- kaldea, egongela, bi bainugela eta igogailuarekin. Prezio onean. In- teresatuek deitu: 629 40 32 20 telefono zenbakira.

■ **Etxebizitza.** Orioko hondartzar- en ondoan pisu berria bat aurkitzen da salgai. Bi logela,

sukaldea, egongela, bi bainugela, terraza eta lur sailarekin. Bi autorentzako garajea du. gainera. Prezio onean. Interesatuek 686 14 29 16 telefonora deitu be- harko dute.

■ **Etxebizitza.** Atikoa Tolosan. Alde Zaharrean 50 metro karratu- ko atikoa salgai. Egoera onean dago eta oso argitsua da. Igogailu du. 132.000 euro (22.000.000 pezeta). Interesatuek deitu 943-43 00 20 telefono zenbakira.

### ALOKAIRUA

■ **Baserría edo borda.** Baserrí edo bordaren bat alokatuko genuke. Interesatuek deitu: 634 45 9110ra.

### GALDUTAKOAK

■ **Erloja.** Emakumezkoen erlojua topatu dute Ibarren. Galdu duenak deitu 943 67 45 72 zenbakira.

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

2010ko USATEGCIEN ENKANTEA  
BIRIGARRO ETA USOA  
ARESO (NAFARROA)  
TEL 948510327-608928626

Donostiatik 20 minututara  
Paradetaraino sarbidea katez  
Enkantea Udaltzaletako Batzar Aretoan burutuko da.

1go enkantea: irailaren 18an, larunbata, 19:00 ordutan  
2.enkantea: irailaren 25ean, larunbata, 19:00 ordutan

# Jendearen jakin-mina 19-90 tabernaren pintxoarekin

**Azoka** » Tolosako Azokak + KM 0 egitasmoaren baitan 100 pintxo inguru banatu zituzten atzo goizean Trianguloan.



Arrautza poltsatxo batean sartuta ur irakinetara botatzen. I. GARCIA

IMANOL GARCIA

Udalak bultzatzen duen Tolosako Azokak + KM 0 egitasmoaren baitan, atzo 19-90 tabernako Aitziber Jauregi eta Ibon Leunda izan ziren beraien proposamena eskainiz Trianguloan. Eta arrakasta izan zuen, jendearen jakin-mina sorraziz. Jauregik zioenez, «gure lehenengo aldia da esperientzia honetan parte hartzen duguna, eta ezin dugu esan jende asko etorri denedoez. Gu oso gustura gaude».

Lanpetuta aritu ziren 100 pintxo inguru egin eta banatzen. Garaiki barazki eta perretxiko salteatuak, lore erako arrautza eta Idiazabal gazta zituen kopa batean banatzen zituzten pintxoak. Elikagai guz-

tiak goizean azokan bertan erositakoak ziren. Jendearen komentarioei entzunez gero, gustura jan zuten mokadua. Pintxoaren elaborazioak piztu zuen ikusmin handiena. Arrautza poltsatxo batean sartuta ikusten zuten eta gero sukaldariek nola jartzen zuten ira-

kiten. Denboratxo baten ondoren poltsatxo atera eta arrautza egozita agertzen zen barruan, lore forma hartuz. «Jendeak galdetzen ari zaigu zer egin dugun, nola egin berriak hori etxean», azaldu zuen. Jauregik. «Bagenekien poltsatxoarenak zeresana emango zuela».

# Ezohiko azoka, babarrun, fruta eta perretxiko artean

**Azoka** » Produktu berriak izan ziren atzokoan; babarrun zuria, Tolosako eta beltza lekatan, esate baterako.

izan ziren, era berean. Aletutako Tolosako babarruna, babarrun zuria eta beltza lekatan, gaztainak eta irasagarria izan ziren atzoko azokako postuetan, beste produktu batzuen artean.

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna desberdina suertatu zen, beste asteburukoekin konparatuz.

Garagardo Azoka zela eta, Zerkausiko azoka postu guztiak Triangulo plazara eraman zituzten eta hantxe ospatu zen eguna, oso era alai eta animosoan, gainera. Salmentak ez ziren batera txarrak izan, eta postu askotan, eguerdi aldera hutsuneak ere sumatzen ziren. Zerrendan berrikuntzak

**Fruta**

Fruta zerrenda ere oso zabala da egun hauetan.

Mota askotako sagarrak, errezi-lak barne, udareak, aranak, aipatutako irasagarria eta kiwiak, besteak beste.

Perretxiko zerrendan ondoak eta ziza horiak izan ziren. Datoren asteetako gure mendietan agertzea espero dutela esan zituzten adituek, eta dirudienez, euri pixka bat egiten badu, ez dira gehiegi atzeratutakoak.

## » ATZOKO AZOKA

**BERDURA PLAZA** Merk. Gares.

### Landareak

Alegria	1,50	2,00
Geranneoa	2,00	-
Menta	1,50	6,00
Albaka	1,50	6,00
Zainzuria	2,80	-
Salbia	1,00	1,20
Berbena	3,00	-
Zilantroa	1,50	-

### Barazkiak (Kiloa)

Tipula berria	1,50	-
Babarrun zuria	8,00	-
Tomatea	3,25	4,00
Ilarrak	10,00	12,00
Babak	3,00	-
Porruak	1,00	4,00
Tolosako babarruna	10,00	12,00
Lekak	3,00	4,00
Patata berria	1,50	2,00

### Barazkiak (unitatea)

Eskarola lisoa	1,00	1,50
Eskarola kizkurtua	1,00	1,50
Azalorea	1,00	1,25
Txikoria	1,00	-
Trebisoa	0,50	-
Letxuk	0,50	0,80

## BERTAKO PRODUKTUAK

### Perretxikoak

Ziza horiak	18,00	-
Onddoak	20,00	-

### Fruta

Kiwiak	3,50	-
Errezil sagarra	2,00	4,00
Urra	2,00	3,00
Intxaurra	2,50	4,00
Udarea	1,00	-

## PRODUKTU EKOLOGIKOAK

### Fruta

Sagarra	2,00	3,00
Intxaurra	4,00	6,00

### Barazkiak (sorta)

Tipula	1,75	2,00
Erremolatxa	1,60	-

### Barazkiak (sorta)

Ziaberba	1,00	-
Erremolatxa	1,50	2,00
Tipula	0,80	1,00
Azenarioa	1,20	5,00
Espinaka	2,00	-
Porrua	1,50	3,00

### Barazkiak (kiloa)

Kalabaza	1,60	3,04
Baratxuria	1,60	6,00
Azenarioa	2,00	2,50
Dilistak	2,40	-

**AUKERA HANDIA ETA GUZTIA**

# Kalitatezkoa

**EDARIAK**

**ELIKAGAIK**

**JANTZIAK**

**DISKOAK, LIBURUAK, DVDAK...**

**ESKULANCIHTZA**

**400**

**SARTU ETA EROSI GUREAN**


**www.euskalherriko Plaza.com**

**TOLOSALDEA**  
GOIMAILAKO I.I.I. INSTITUTUA

**FORMAZIO OKUPAZIONALA**

KASTARUA - CURSO	ORDUK	HASIA
FABRIKAZIO MEKANIKARAKO LAGUNTZA ERAGIKETAK (LANBIDE)	428	06/19/2018
ARRO ELEKTRIKO SOLDEATZALEA (LANBIDE)	311	06/19/2018
OFFICE TEKNIKARIA (BARBIDE)	230	18/19/2018

Martxoak 6 informazio: Telefono 943 88 11 47  
Santia Leku, 17 - 20400 921.0354  
E-mail: [itxela@tolosaldea.com](mailto:itxela@tolosaldea.com) Web: [www.tolosaldea.com](http://www.tolosaldea.com)



Berdura plazan mugikotasunarekin lotutako produktuak izan ziren salgai. E. E.

## Mugitu ahal izateko, garraio osasungarria prezio onean

**Villabona** » Bigarren Eskuko Azokan jendeak erosketa oso onak egin ahal izan zituen atzo; gaur Bizikleta Bira izango da.

### ERREDAKZIOA

Atzo Bigarren Eskuko Azokarekin hasi zen Tolosaldeko Mugikortasun Astea. Bertan mugikortasunarekin lotutako hainbat material aurki zitekeen: bizikletak, trizikloak, patinak, kaskoak, haurrak eramateko kotxeak, baita bidaiarako sehaska ere. Goizean 10:00etan ireki zituen atea Berdura plazako merkatuak, baina prestatzen ari ziren bitartean ere inguratu zitzaizen jendea galdetzera.

Urte urte gero eta arrakasta handiagoa ari da lortzen Bigarren Eskuko Azoka, eta egoera onean dagoen materiala, prezio oso baxuan eskuratzeko aukera ematen baitu. Arduradunek azaldutakoaren arabera, goizeko lehen orduetan ibili zen jende gehien. Hamabietarako 13 bizikleta salduak zizuten, baita bestelako tresna ugari ere. Haurrentzako bizikletak izan ziren arrakasta gehien izan zutenak, eta errepidekoak gutxien.

Denera, eskualdeko hamar herrikan bildu dute materiala: Anoeta, Aduna, Villabona, Asteasu, Zizurkil, Elduain, Tolosa, Irura, Berastegi eta Ikaztegiatik. Merkaturian saltzen ziren produktuen prezioa jabeek jartzen zuten, eta saldu ez dena berriro beraieki itzuliko zaie.

**Autoa partekatze gongibita**  
Tolosaldea Garatzenek duela hilabete batzuk martxan jarritako *Autoan elkarrekin* proiektuaren ingu-

### » BIZIKLETA BIRA

#### Irailak 19, gaur

■ **Bizikleta Bira.** 10:30ean Asteasu eta Ikaztegiatik abiatuta, Anoetan elkartuko dira.

■ **Anoeta.** 11:30ean iristea aurreikusten da eta hamaiketako eta bonu baten zozketa egingo da.

ruko informazioa ere banatu zuten Bigarren Eskuko Azokan.

Tolosaldean, ekimen honi esker, ibilgailu pribatua partekatze-ko interesa duten pertsonen, elkar ezagutzeko bidea ematen zaie. Proiektu hau martxan jartzeko Udalek eman zuten informazioa eta Tolosaldea Garatzenek bere web orrian jarri zuen zerbitzua, [www.tolosaldeagaratzen.net](http://www.tolosaldeagaratzen.net) helbidean, hain zuzen ere. Eskualdeko zenbait udalen web orrietan ere aukera hori eskaintzen da.

#### Igande goiza pasatzeko Bizikleta Bira

Gaurko Bizikleta Biran parte hartu nahi dutenek bi ibilbide egiteko aukera izango dute: Asteasutik abiatu eta Anoetako plazan bukatu edota Ikaztegiatik abiatu eta Anoetara joan. Tarteko herrietan ere, txirindulariak sartzen joateko aukera izango da. Bai Asteasutik, bai Ikaztegiatik, Bizikleta Bira goizeko 10:30ean aterako da eta Anoeta izango dute helmuga.

Ibilbidea, musikaz girotuta egongo da eta hamaiketako banatuko da. Era berean, partaide guztien artean eskualdeko bizikleta denda batean gastatzeko bono bat zozketatuko dute.

Aipatutako kanpainaren helburu nagusia en gizar artean garraio mota iraunkorren aldeko sentsibilizazioa bultzatzea da.



## Wushuk irabazi du 'Billabonara!'

**VILLABONA** » *Billabonara!* futbito txapelketa jokatu zen atzo Errebote plazan. 12:00ak inguruan hasi zen lehendabiziko partida eta arratsaldera arte luzatu zen norgehiagoka. Denera, lau futbol taldek hartu zuten

parte: Laskorain areto futbola, Onddo gazte asanblada, Wushu eta Iratzarrekoek. Ligaxka jokatu ostean, azken biek lortu zuten finalerako txartela, eta lehenak izan ziren garaile. E. EZEIZA



## Pilotaren bueltan, festa handia

**BIDEGOIAN** » Pilota, lehia ez ezik joko ere badelako, pilotari gaztetxoek eta hauen familiakoek jaialdi berezi bat ospatu zuten atzo Bidegoiango pilotalekuan. Aurrrera Saiazgo Markinako eta Añorgako haurrek tx-

pelketatxo bat jokatu zuten. Lehiak baino gehiago jolasak izan zuen lehentasuna eta ez ziren geratu ere egin. Egunari amaiera, denek elkarrekin argazki bat atereaz, eta mokadu bat janaz eman zioten. E. EZEIZA



## Mikel Ayestarani harrera beroa

**VILLABONA** » Mikel Ayestaran preso ohiari harrera beroa egin zioten atzo iluntzean herritarrek. Berdura plazan atondu zuten eszenatokia eta ez ziren falta izan txalapartariak, dultzaineroak, dantzariak, bertsola-

riak, opariak... Honez gain, Jose Mari Olarra herrikideak idatzitako gutuna ere irakurri zuten. Uztailean 22an askatu zuten Ayestaran epaileak jarritako 18.000 euroko fidantza ordaindu eta gero. E. EZEIZA

# Kalebeherako festek jolaserako aukera eman dute

**Alegia** » Gaur bukatuko dira auzoko jaiak; atzo, besteak beste, haurren jolasak eta helduen pala txapelketa izan ziren.

## ERREDAKZIOA

Kalebeherako auzokideek festei amaiera emango diete gaurko ekitaldiekin. Bien bitartean, atzo jolaserako unea izan zuten arratsaldean. Haurrek hainbat jolas izan zituzten egiteko: lokotx bilketa, soka-tira, txingak, zaku-karrerak... Egitarauan huts egiten ez duen ekitaldira haur mordoxka bildu zen eta, beti bezala, zuten guztia eman zuten jolas bakoitzean.

Ohitura handiko beste ekitaldia pala txapelketa da. Eguzkiak ere parte hartu nahi izan zuen lehian

eta pilotariek izan zuten beraien jokoa erakusteko aukera. Hamabost lagun inguruk parte hartu zuten teniseko pilotarekin jokatzeko den lehiaketan. Pilotalekuaren erdian dagoen behin-behineko Haurreskolak kantxa zerbait murrizten bazuen ere, pilotakada ederrak ematen zizkioten parte-hartzaileek. Atzo kanporaketak eta finalerdia jokatu ondoren, gaur arratsaldean jokatu dute finala.

## Gustura jan eta edateko

Gaur izango dute azken festa eguna eta bai jatekoa eta bai edateko hainbat aukera izango da. 11:00etan dantzariak izango dira. 12:30ean txakolin dastatzea eta sardina jatea. Ondoren herri bazkaria. 17:00etan pilota eta pala txapelketako finalak. Iluntzean zahargardoa eta gero mus txapelketa.



Goian haurrak soka-tira; behean lokotx biltzen eta helduak pala txapelketan. I. GARCIA



## Irudikatu mundua BERRIarekin

Egin harpidedun eta jaso  
**ARGAZKI KAMERA HAU OPARI.**



### Ezaugarriak:

- Kamera digitala, 9 megapixelekoa
- TFT pantaila, 2,4 hazbetekoa
- Irudiaren berrezimenez ezin hobea, 16 megapixel artekoa, software interpolazioa erabiliz
- Zoom digitala, vs. argazkiak hartuzko
- Mugimenduko JPEG bideo formatua
- Mikrofonoa
- SD memoria txartelak onartzen ditu, baita 8 GBkoak ere

Orain, beste arrazoi bat BERRIaren harpidedun izateko.



Ezaugarriak:  
samsung LE 32C450

Telebista 32 hazbeteko pantaila laua du, eta DNIe irudi prozesadorea, USB 2.0 ataka bat du, HDMI harria eta PC-ko sarrera bat eta eurokonexioa bat audio eta bideo konfigurazio guztiekin lotzeko.

Urriaren 15ean,  
**telebista hau zotz egingo dugu**  
BERRIaren harpidedunen artean,  
Elektraren eskutik.

elektra  
www.elektragaia.com



## Zelaia eta Ariztimuño tokan irabazle

**IBARRA** » Bizi-Nahi elkarteak jaien baitan Toka Txapelketa egin dute. Lehen postua Jose Migel Zelaia eta Rosa Mari Ariztimuñoek eskuratu dute (argazkiaren erdian) eta bigarren Petra Perezek eta Isaías Gonzalezek egin dute. Gaurko ekitaldiekin bukatuko dituzte jaiak. REBEKA CALVO



## Extremaduraren berri jakien bidez

**IBARRA** » La Jara elkarteak Extremadurako produktuekin postua jarri zuten atzo Emeterio Arrese parkearen frontoian. Hango jakiekin egindako pintxoak dastatzeko eta hainbat produktu erosteko aukera izan zen. Baita Extremadurako dantzak ikustekoa ere. REBEKA CALVO

**E Elkarrizketa**

**NAGORE AROZENA ETA ITSASO URKIZU** ▶ Palistak

# «Guretzat frantziarrak dira aurkaririk gogorrenak»

**Pala** ▶ Datorren hilean, Paun jokatu den Munduko Euskal Pilota Txapelketan lehiatuko dira eskualdekoak, gomazko paleta eran.

**JONE GOROSTARZU**

Urriaren 1etik 10era Frantziako Pau herrian XVI. Munduko Euskal Pilota Txapelketa jokatu da. Bertan izango dira, trinketeko gomazko paleta modalitatean, Nagore Arozena (Lizartza, 1986) eta Itsaso Urkizu (Berastegi, 1986). Gogoz eta ilusioz daude txapelketari begira.

**Orain arte noizbait parte hartu al duzue Munduko Txapelketa batean?**

**Itsaso Urkizu:** Maila ezberdinetako Munduko Txapelketak daude. 22 urtez azpikoetan Uruguaien eta Txilen izan ginen, eta absolutu mailan ni Mexikon izan nintzen, eta aurtengoa bigarren aldía da.

**Nagore Arozena:** Niretzat, berriz, absolutu mailan Munduko Txapelketara noan lehen aldía da. Horretaz aparte badago Munduko Kopa deitzen zaiona ere; Munduko Txapelketan podiumean geratzen diren hirurek eta antolatzen duen herrialdeak jokatu den Munduko Kopa.

**Pilotari esker munduko leku ezberdinetan izango zineten. Pizgarri bat al da zuentzat nazioartera iritea?**

**I.U.:** Bai, polita da. Horrela beste herrialdeak ezagutzen dituzu, beste kultura batzuk, beste jende bat. Merezí du.

**N.A.:** Azkenean hori da gure pizgarria, palatik ez gara aberastuko. Bidaiaztea, horixe oparitzen digute; jendea ezagutzen duzu eta ondo dago. Gu Txilen, Uruguaien, Argentinan eta Kuban izan gara, eta Itsaso Mexikon ere bai.

**Noiz eta nola izan zen Txapelketa honetarako aukeraketa prozesua?**

**N.A.:** Aurten nahiko berandu hasi gara. Diru aldetik krisia daukate Federazioan, beraz gastuak moztu dituzte eta entrenamenduak gutxitu. Aurreneko aurkezpena mar txoan egin genuen. Bost pertsona aukeratu gintuzten eta hortik lau joan behar genuen Paura. Gero entrenatzen uztailla hasieran hasi ginen, eta uztailla bukaeran esan zuen entrenatzaileak zein joango ginen.

**I.U.:** Bai, hasieran bost ginen, hemen inguruko hoberentsuenak, eta gero hortik lau aukeratu zituzten, bi nafar, eta gu.

**Nolako mailarekin topo egiten da txapelketa mota hauetan?**

**N.A.:** Bi talde egoten dira. Gurea lehenengo taldea da, faboritoena edo, eta bestea, berriz, bigarren mailakoa. Gure mailan bost gara; gurekin batera Frantzia, Argentina, Kuba eta Mexiko daude. Bestean Uruguai, Venezuelá, AEB, Kanada eta Brasil daude. Horietatik lehenengo geratzen dena gora pasatzen da, gure mailara, eta gurean azkena geratzen dena, berriz, behera. Eta gero finalerdiak hasten dira.

**Zein da aurkaririk gogorrena, zuen ustez?**

**I.U.:** Frantzia. Denek maila ona dute, eta gogorra da. Gainera etxean jokatu dute, eta animoa ere izango dute.

**N.A.:** Frontoia ere ezagutzen dute, eta guri, berriz, ez digute uzten bertan entrenatzen.

**Nola antolatzen da txapelketa? Zenbat partida jokatu dituzte?**

**N.A.:** Hasieran bosten artean ligaxka egiten da. Normalean lau izaten gara, baina aurten bost jarri dituzte eta luzea geratuko da. Lehenengo hiru egunetan segidan jokatu den dugula uste dut, eta gero bi eguneh behin. Eta sailkatuaz gero ere bi eguneh behin jokatuko genuke.

**«Txapelketan tentsioa dago; beste bat daukazu entrenatzaile, eta hari ere goitik agintzen diote»**

**I.U.:** Gu irailaren 28an abiatuko gara Paura, baina Txapelketa urriaren lehen hasiko da. Eta amaitu, 10ean amaitzen da, baina iristen bagara gure finala 9an izango da, larunbata. Hala ere, finalean izan edo ez han geratuko gara Txapelketa amaitu arte.

**Nola ikusten duzue zuen burua, prestaketari dagokionez?**

**I.U.:** Beno, ez dugu askorik entrenatu, eta urte osoan ere ez dugu oso maila ona eman.



JONE GOROSTARZU

**N.A.:** Aurten nahiko gaizki ibili gara. Entrenatzen ere jende gutxi ginen. Gainera jende berria hasi da, eta normala den bezala, haiekin entrenatu behar da, ez gara asko eta. Gainera Maider, adibidez, hemen inguruan onena dena, haurdun geratu zen eta beraz, ez zen entrenatzen. Beste argentinarrak ere besotik gaizki ibili da tendinitzarekin eta hura ere ez zen entrenatzen. Eta gu biok ere ez gara oso fin ibili, ea buelta ematen diogun.

**I.U.:** Berandu hasi gara entrenatzen, eta hori nabaritu egiten da.

**Nola ari zarete prestatzen Txapelketarako?**

**I.U.:** Astean bi egunetan entrenatzen gara. Hasiera batean astearte eta larunbatetan egiten genuen, eta orain astearte eta ostegunetan.

**N.A.:** Gero asteburuetan gure arteko txapelketa bat daukagu, pixka bat lehiari sartzen joateko.

**Euskal Herriko partidetatik Txapelketakoetara, aldatzen al da jokatzeko modua?**

**N.A.:** Jokoa baino gehiago, tentsioa da ezberdintasuna. Guk hemen batzuetan elkarrekin hitzik ere egin gabe jokatu den dugu, lasai. Ira-

baztea beti da gustagarria, baina galduz gero ere ez da ezer gertatzen. Baina Txapelketan tentsioa dago, gainera beste bat daukazu entrenatzaile, eta hari ere goitik agindu egiten die, eta azkenean presioa daukazu.

**I.U.:** Gainera talde bakoitzak desberdin jokatu dute. Esaterako, mexikar batzuek efektu desberdinak ematen dituzte, eta gu pixka

**«14 modalitatetatik bitan bakarrik daude neskak; orain federazioak beste bat sartu nahi du»**

bat nahastu egiten gaituzte, eta, beraz, zailagoa izaten da.

**Zuek Pauen trinketean jokatu duzue, gomazko paletarekin. Izango al da emakumezkorik gainerako modalitateetan?**

**N.A.:** Frontenisean jokatu dute, hogeita hamar metrotan. Bestela, hamalau modalitatetik bitan bakarrik daude neskak. Orain federazioak hirugarren modalitate bat sartu nahi du; gure pala berdinarekin mutilek frontoi motzean ere jo-

katzen dute, eta hori bera jarri nahi dute nesketan. Baina oraingoz ez, oraingoz frontenisean eta trinketean baino ez dugu jokatu.

**Nola ikusten duzue gomazko paletaren etorkizuna?**

**I.U.:** Etorkizun handirik gabea. Ez dago ezer, ez da futbola bezala zabalitzen.

**N.A.:** Inork ez du ezagutzen gure modalitatea. Orain hasi dira pixka bat Gipuzkoan frontoian jendea mugitzen; azkenean hemen ezagutzen duguna pilotalekua da, eta gero gustatzen zaiona probatzeko trinketean sartzen da. Baina hori berandu samar gertatzen bada, trinketea hartzerako... gu hamabost urterekin hasi ginen eta oraindik izugarritzko hanka-sartzeak egiten ditugu! Askok falta zaigu ikasteko.

**Azkenik, eta aurrera begira, ba al duzue pilotari jarraitzeko asmorik?**

**N.A.:** Nik bai, segurua, ezin dut bizi pilotarik gabe, aspertu egiten naiz bestela.

**I.U.:** Nik jada aurten uzteko asmao dut. Urte sabatikoa hartuko dut, eta gero ez dakit.



20°  
12°

GOIZA EGUZKIA  
ARRATS. EGUZKIA  
BEROENA 24°  
HOTZENA 17°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 118. ibarra@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leizaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Kirola

■ **Tolosa.** Xake erraldoia Trianguloan 18:00etan, XII. Garagardo Festaren barruan.

### Deialdia

■ **Anoeta.** Mugikortasun Astea: Bizikleta Bira 10:30ean Asteasu eta Ikaztegietatik abiatuta, Anoetan elkartuko dira. Anoetan 11:30ean iristea aurreikusten da eta hamaiketakoa eta bonu baten zozketa egingo da.

### Jaiak

■ **Ibarra.** Bizi-Nahi jubilatuta eta pentsiodunen elkartearen jaiak: 09:00etan diana izango da, 10:30ean hildako bazkide guztien aldeko meza egingo dute San Bartolome elizan; 14:00etan Belabietan kiroldegian bazkaria izango da eta opariak ere banatuko dituzte bertaraten direnen artean; jarraian dantzaldia izango da; eta 19:30ean jaien amaierako txupinazoa botako dute.

### Irteera

■ **Amezketeta.** Amezketako Udaleko Kultura Batzordeak antolatuta, Ormaiztegi, Azpeitia eta Zarautzera irteera egingo dute hilaren 26an. 60 urteko gorako herritarrek dute lehentasuna, baina autobusa betetzen ez bada gainontzeak ere joan ahalko dira. Hilaren 20, 21 eta 22an (60 urteko behar-koek) eman ahalko da izena. Pertsona bakoitzak 27 euro ordaindu beharko ditu.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Moraut, R. Zabalarreta, 1.943 67 36 49.  
■ **Leitza.** Larraia, M. I. Elbarren, 95.112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



**TOLOSA** ● Mozanbiketik 11-hanen ateratako argazki hau bidali digu Pablo Marfurtek Argazki Lehiaketan parte hartzeko: «Irlako kaleetan paseatzea denboran atzera egitea da. XIX.menderarte Mozanbiketik hiriburu izan zen; urrea eta esklabuen trafikoa zela eta. Ameriketarako eta Indiarako atea izan zen irla. Garai oparoak, urrezkoak, urrun geratu dira. Erortzer dauden etxebizitza kolonialen atarrietan, honelako salmenta postuak daude. La-saitasuna eta xumetasunaren irudia: tomateak eta kokaok saltzen ditu emakumeak, umeekin jolas egiten duen bitartean». PABLO MARFURT

## A Agurrak



**Zorionak!**  
Onditz ongi etorri Lizartzara.



**Urte askoan!**  
**Juan Larreta Jauregi (Amezketeta).** Gaur 84 urte. Muxu handi bat familia guztia ren partetik.

**agurrak** urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

argazki lehiaketa

**XII. HITZA Argazki Lehiaketa**  
Animatu eta parte hartu!

NORA BIDALI?

argazkiak@tolosaldeko hitza.info helbide elektronikora  
Irailak 30 arte

**HITZA** udarako argazki lehiaketa

**1. Saria**

**2. Saria**

**3. Saria**

Parte-hartzaileak HITZAko ma...